

Gero eta informazio gehiago dugun arren, gero eta arazo gehiago ditugu informazio hori prozesatu eta horri lotutako erabakiak hartzeko. Informazioa sortzeko aukerak ere anitzak dira, [robot bidez sortutako edo lagundutako albisteak gero eta gehiago dira](#).

Informazioa bistartzeko bideak ere asko zabaldu dira eta [batzuk benetan ikusgarriak dira](#), baina horri lotuta, antolaketa horretan laguntzeko bada berriro ere [jarioak \(edo RSSak\) web guztietan egotea](#) eskatzen duenik. Gure atentzioa lortzeagatik irekitako borroka honek, [eragiten ari dizkigun kaltearen](#) seinale argiak daude, erabaki serioagoak hartzeko ordua iritsi dela dirudi.

Enpresa erraldoiek, zein estatuek, gure datuen kontrola eskuratzeko estrategiei buruz ere informazio gero eta gehiago izaten ari gara. [Facebookek xaguaren mugimenduak ere jasotzen dituela](#) baieztatu du. Txinako azken asmakizuna aldiz, [hiritarrak kontrolatzeko txori itxurako droneak](#) dira. Beste behin ere, [gure datuak hauteskundeetan eragiteko erabiltzen direla](#) ere jakin dugu; jada harritzen ez gaituen espiral batean.

Dena ez da txarra izango, [AEBetan telefono bidez uzten dugun kokapenari buruzko informazioa eskuratzeko kontrol gehiago ezartzea](#) onartu dute. Droneak aldiz, intsektuek egiten zituzten lanak egiteko ere erabiltzen hasi dira; [hemen dira drone polinizatzaileak](#).

Ezberdintasunak gero eta gehiago dira eta noski [algoritmoetan ere nabaritzen dira](#). Gero eta garrantzia gehiago izango dute hauen lana ikuskatzea, sor daitezkeen arazoak gero eta handiagoak baitira, bereziki [oinarrizko beharrei lotuta badaude](#). Algoritmoak guk programatu arren, lausoa da oraindik beren inguruan eraikitzen ari garena eta [arte da, labainkortasun edo ziurgabetasun hori erakusten lehena](#).

Lanaren esparruan badira mugimendu interesgarriak. Askok elkarlanarekin dute zerikusia, beti izan den bezala bide batez: [langileen enpresa berreskurapena](#), [kooperatibismoaren irla berriak](#), [aplikazio bidezko langileen prekarizazioaren aurkako neurriak](#)... Bitartean Tesla, modan dagoen enpresa teknologiko eredugarriak, bere marka esplotatzen jarraitzeko, prest dago [bere esplotazioak sortutako istripuei buruzko datuak ezkutatzeko](#).

[Teknologia berri asko bidean dira](#), zer ekarriko duten oso argi ez badugu ere. Jendartearen onura bilatzen duen diskurtso eta praktikak falta diren honetan, garai batean espazioari begiratzen jarri ginen bezala, berriro egin genezake; [arazoa gehiago larrituz](#) edo [bide itxaropentsuak irekiz](#). Bitartean, oinak lurrian, [eguneroko arrastoek utzitakoarekin konformatu beharko gara](#).

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)